



Hamasei Ipuin Amodiozko X. Mendiguren

Ipuin-bilduma zaharra da, Susaren argitalpena 2011. urtekoa bada ere (data hori liburuaren berrargitalpenarena da). Egiatan, ipuin hauek –egileak berak ipuin bakoitzaren bukaeran adierazten duenez– 1988an eta hurrengo bi edo hiru urteetan idatzi ziren, oker ez banago. Beraz, abiapuntua aski zaharra da, batez ere gaur egun zeinen azkar eboluzionatzen dugun kontuan hartuta –informatika ez da azkar eboluzionatzen duen gauza bakarra.

Gehien gustatu zaidan ipuina “Postaria” deritzona izan da. Ipuin honek oso planteamendu unibertuala du. Ez dakit egilearen uztakoa den ala beste ipuin batean edo filmen batean inspiratuko ote zen. Ideia bere-berea

baldin bada, zinez txukuna litzateke, oso planteamendu fina du-eta (hala ere, esango nuke ipuinaren ardatza –jendearen eskutitzak irakurtzen zituen postariarena, alegia– nahiko erabilia izan dela, ideia horren monopolioa inork ez badu ere. *Latente* dagoen gai horietako bat da, eta Xabier Mendigurenek bere modura erabili du).

Gainerako ipuinei buruz, ordea, ezin gauza bera esan. Gutxi gorabehera, neurri batean, gustura irakurtzen dira... ondo idatzita daudelako (eta idatzita ez ezik, berridatzita ere badaude, Susaren ediziorako). Ipuinen alderdi deskribatzaileek ondo sustraituriko euskara bat azaltzen dute, baita ziurtasuna eta jeinu linguistikoa ere. Baina asmo literarioa ez dago maila berean. Ez du altu hegan egiten. Atzerrian, liburu salduzina litzateke. Ondo dago euskaraz irakurtzeko, eta kito (ez da gutxi).

Arazoa –nire aburuz– “Pastitxe bat” deritzon ipuinera edo kontakizun laburrera iristen zarenean sortzen da. Hor eskema guztiak apurtzen dira. Liburuak lehendik bigarren mailako literatura-abisu askotxo emanak bazituen, ipuin honekin edalontziak gainezka egiten du, une horretan liburuaren irakurketa bertan behera uztea erabakitzeraino, nahiz eta lehendabizi arnasa hartu eta ipuina edo narrazioa bukatzea deliberatu. “Pastitxe bat” azkenurreko ipuina dela uste dut; beraz, ia-ia liburu osoa irakurtzera iritsi naiz, aipatutako ipuinarekin izan dudana esperientzia penagarriaren ostean, liburu bukatzera animatu ez banaiz ere.

Garai ez oso urrun bateko idazleak –trantsizio aurrexetik, trantsizioan zehar eta trantsizioaren ostean sortu zirenak– hizkuntza finkatzeaz arduratu ohi ziren gehienbat, hizkuntza hartaz baliatu beharko zuten-eta geroagoko lanak sortzeko. Liburu hau, agian, hobeto uler daiteke ikuspuntu horretatik.

Nolanahi ere, liburu bat ez da literatura, soil-soilik, zuzen idatzita egoteagatik. Adibidez, kultura normalizatueta jende askok daki zuzen idazten, eta horrengatik ez dira idazle apartak. Kultura normalizatueta bizi direnei euren hizkuntza-abiapuntua ia-ia jaiotzatik bertatik emana zaie eta hori ez da nolana hiko abantaila; hemen, ordea, abiapuntu hori topatzea askoz nekezagoa izan da –eta askoz nekezagoa da oraindik–, eta horren ondorioz, bilgarriari edukiari baino garrantzi handiagoa emateko joera izaten dugu. Fenomeno hori duela 20-30 urte gertatu zen modu kolektibo batez; eta gaur egun,

gertatzen jarraitzen du, nahiz eta hain modu kolektibo batez ez izan. Zenbait lorpen – garrantzitsu– izan dira hartaz geroztik (bai alor honetan bai beste alor batzuetan).

Pasadizo modura, zera esango dizuet: duela urte askotxo, bertoko literatura-ekoizpena pixka bat albo batera utzi banuen, arrazoi horrengatik izan zen, euskaraz azpiproduktuak irakurtzeaz nekatu nintzelako, eta horretxegatik hain zuzen bilatu nuen aterpe euskarazko itzulpengintzan, zeren, euskal argitaletxeek eta erakundeek bultzatuta, kalitate handia erdiestera heldu baitzen, eta duela zenbait urteko literatura-ekoizpenaren kalitate-falta hori –neurri handi batean– ordeztea ere lortu. Orduetik hona bide luzea egin da eta lorpen nahiko esanguratsuak izan dira, garai haietan euskaraz argitaratzeak eragiten zuen hasierako “harridura” hura gaintzetik literatura-lan baten kalitatea gobernatu behar duten benetako parametroei kasu handiagoa egitera salto eginez –alde horretatik, itzulpengintza literarioaren ekarpena erabakigarria izan da, nire ustez.

Hala eta guztiz ere, duela 20 edo 30 urte euskal idazle batzuek beste batzuek baino arreta handiagoa jartzen zioten atzerrian egosten zenari, bertoko sortze-lanen barruan hainbeste itxi gabe. Eta aurrerago hori gehiago nabaritu izan da idazle batzuetan beste batzuetan baino –belaunaldien arteko aldeak eta mugak albo batera utzita.

Eta gutxi gorabehera, hau izango litzateke dena. “Pastitxe bat” ipuinaren ukitu homofobikoa ere aski nabaria da, egilea bere burua zuritzen saiatu bada ere, esanez, Almodovarren tankerako giroa sortu nahi zuela. Ez dakit... Denoi kostatzen zaigu zenbait gauza ulertzea (baita niri ere); dena den, sentimendu ilun batzuk hobe dugu geurekin hilobira eramatea, besteei helarazten ahalegindu gabe. Ziur aski, gizarteak horrela ere hobetzen dira: isilik egoten jakinik... behar denean.

Dena den, ez gaitezen Mendigurenekin bidegabeak izan. Esan bezala, ipuin hauek aspaldian idatziak dira, eta denoi kostatu zaigu zenbait gauza ulertzea eta gutxi gorabehera onartzea. Ez dugu euskal idazle nabarmen bat epaitu behar duela hogeita bost urte lausoki aditzera emandako zerbaitengatik; hala eginez gero, denok egongo baikinateke galdua, eta ni lehena.